

BESTELAKO XEDAPENAK

BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

6112

EBAZPENA, 2021eko azaroaren 15ekoa, Familia eta Haurren zuzendariarena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita 14 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko langileak kontratatzeko laguntzei buruzko Dekretu-Proiektua.

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak «14 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko langileak kontratatzeko laguntzei buruzko dekretu-proiektua» prestatu du, eta Xedapen Orokorrak egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearekin bat etorritik izapidetu behar da.

Lege horretan xedatutakoa betetze aldera, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuak, 2021eko azaroaren 2an, agindu bat eman zuen, zeinaren bidez hasiera ematen baitzaio goian aipatutako dekretu-proiektua prestatzeko prozedurari; gerora, 2021eko arazoaren 10ean, dekretu-proiektuaren testua aldeztu aurretik onartzeko agindua eman zuen, behin artikulua idatzi ondoren.

Aipatu 8/2003 Legearen 8.1 artikulua arabera, xedapen orokorrak jendaurrean jarri behar dira, baldin eta herritarren eskubide eta interes legitimoak eragiten badiete –kasu honetan eragiten die– eta xedapenen izaerak hala eskatzen badu.

Horretarako, jendaurrean jartzen da «14 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko langileak kontratatzeko laguntzei buruzko dekretu-proiektua», hogenegun baliadun, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Azaldutako guztiagatik, dekretu-proiektu hori prestatzen hasteko prozedurari hasiera ematen dion Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren ebazpen-zatiaren bigarren eta hirugarren apartatuekin bat etorritik, eta aintzat hartuta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 12/2021 Dekretuaren 17.b artikulua, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Jendaurrean jartzea «14 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko langileak kontratatzeko laguntzei buruzko dekretu-proiektua», hogenegun baliadun, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Bigarrena.– Goragoko apartatua xedatutakoaren ondorioetarako eta herritarrek alegazioak aurkeztu ahal izateko, delako dekretu-proiektua eskuragarri izango da honako leku honetan: Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko Familia eta Haurren Zuzendaritza (Donostia kalea 1, Lakua I eraikina, 1. solairua) eta Eusko Jaurlaritzako egoitza elektronikoaren iragarki-taulan, www.euskadi.eus web-orrian.

Hirugarrena.– Alegazioak Familia eta Haurren Zuzendaritzan aurkez daitezke, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako lekuren batean, eta Familia eta Haurren zuzendariari zuzendu behar zaizkio.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko azaroaren 15a.

Familia eta Haurren zuzendaria,
MIREN IRUNE MUGURUZA MENDARTE.